



GB

GRAND BOT – PROTECT OUR FUTURE

3- ELKARTEAK

Gure aldetik. Grandbot proiektua aurrera eramateko, beharrezkoak izango genituzkeen **3 elkarte edo sektoreak** guztiz argi izatea funtsezkoa da proiektuaren helburuak zein gure helburu pertsonalak lortu nahi ezkerro. Beraz, hiru elkarteak hauek dira : egoitzak, jaurlearitzako dagokion saila eta eraikuntza enpresak.

Lehenengoa eta benetan ezinbestekotzat dauzkagunak **egoitzak** dira. Azken batean, gure sistemaren helburua egoitzetan eta etxebizitzetan jardutean datza eta, horretarako, lehen hauekin hitz egitea garrantzitsua da sistema non instalatzeko aukera izateko. Etxebizitzaren kasuan, faktore pribatu bat izanez gero, bezeroekiko banan-banako instalazio pertsonalizatuak egin beharko genituzke (egoitzen kasuan instalazio jeneral eta osoa da, han dagoen agure bakoitzak arazo desberdin bat izan ditzakeelako), bakoitzaren arazoari erreparatuz.

Esan bezala, bigarren faktorea Eusko Jaurlearitzaren laguntza izango litzateke. Kasu honetan, beharrezkoa baino gehiago lagungarria izango zen, azkenean enpresa pribatu bat garenez, gure aldetik lan egin genezakeelako. Baina, sektore publikoaren laguntza badaukagu, hainbat helburu gehiago lortu ahalko genituzke. Adibidez, haiekin haiek kontrolpean dituzten toki askotako instalazioen kargu egingo ginateke, enpresarako ezin hobe izango baitzen. Bestalde, batera gure herriak daukan arazo handienetako bati aurre egingo genioke, hau da, gure gizarte gero eta zaharkituagoari.

Azkenik, hainbat eraikuntza enprekin lan egitea ere proposatzen dugu. Gure ustez, beste lantalde espezializatu batzuekin ere askoz gauza gehiago egingo genituzke. Gainera, enpresa hauekin edozein kontraturen ondorioz haiek eraikitako etxeetan instalazioa aurrez aurretik etortzeko aukera izango genuke eta honek gure proiektuari etorkizun egonkor eta indartsu baten aukera emango lioke, aliantzen bidez.





GB

Beraz, gure aldetik uste dugun bezala, elkarteen saila oso garrantzitsua den zati bat da, ondo moldatuz gero, beste ekintzailerekin edota enprekin batera gauza asko lortzeko eta jende asko laguntzeko bidean egongo garelako eta, azkenean, hau baita enpresa baten helburu nagusia.